



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO HIRIAN HIRI GARRAIO KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO KONTRATUAREN (BILBOBUS) FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Bilboko Garraio Zerbitzua (BILBOBUS) aztertzen duen txosten hau gauzatu du. Gure lanaren helburua Bilboko Udalaren eta TCSAren artean 1992ko maiatzaren 20an izenpetutako Bilbobus zerbitzua emateko kontratua aztertzea izan da, amaitu bitartera arte izan dituen eguneraketa eta aldaketak, ezargarria zaion arautegia bete dela egiaztatzeko eta 2004-2007 aldian kontratua betetzetik eratorritako alderdi ekonomikoak aztertuz.

Txostena, Osoko kide guztiek onetsi dute eta hainbat akats azaleratzen ditu, besteak beste, honako hauek azpimarra daitezkeelarik:

- Aholkularitza Juridikoaren nahitaezko txosten eza eta Estatuko Kontseiluaren Irizpen eza 1988 eta 1992ko urteetako kontratuen eguneraketetan.
- Gobernu Batzordeak 2008ko otsailean onetsitako luzapenaren justifikazio behar ez hainbatekoa.
- Plantilaren atxikipena Bilbobus zerbitzura ez betetzea, TCSAk 2006ko kontratuaren aldaketarekin gauzatu behar zukeena, horrek inongo zigorrik eragin gabe.
- Eragin ekonomikoa zuten aldaketak kostua zehaztu gabe onetsi dira eta aurrekontuan izango zituzten ondorioak balio neurtu gabe, alderdi horiek guztiak gerora, urteko likidazioan onesten direnak.
- Bilbobus eta Bizkaibus zerbitzuen arteko kostu komunen banaketa, kontratua sinatu zenean gauzatutakoa, ez da egokitu azken urteetan zerbitzua ematean gauzatutako aldaketetara.
- “Creditrans”etik eratorritako diru-sarrerak ez dute kontularitzan islarik izan, TCSAk Udalari aurkezten zizkion hilabeteko egiaztagirietatik murrizten baitzituen. Gastu eta sarrerak “garbitzeko” aribide honen ondorioz, udal kontuek ez dituzte zerbitzuaren sarrera eta gastu guztiak islatu.
- Urteko likidazioak bederatzi hilabeteko atzerapenez onesten dira; ordea, kontratuaren aurreikuspenek hurrengo ekitaldiaren lehenengo hiruhilekoan aurkeztea agintzen zuten.



- 59 autobus berriren erosketa zuzenean gauzatu da, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe.
- Industri mozkina zuzenean ustiaketa kostuaren gainean aplikatzeak, ustiaketa emaitza alde batera, bidaiari kopuruarekiko helburu ezak, edota sarreren diru-bilketa ordainsariari edo zerbitzuaren emaitza ekonomikoari ez lotzeak, enpresak zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko balizko estimulua izatea saihestu dute.

Aurreko akatsak akats, bereziki zerbitzuaren kostuei buruzkoak, Epaitegiak, erregistratutako ordainagirien eta Udalak aitortutako eskubideen arabera, 44 milioi eurotan ezarri ditu 2004-2007 aldiko sarrerak, eta 106 milioi eurotan aldi horretan Bilbobus zerbitzuak izandako gastuak.